

Euskaraz Bizi

Jose Luis Gorostidi

"Euskaraz Bizi" murgiltze ereduetan eskolatuak dauden ikasleekin euskara biziago eta erneago bat lortu nahi duten lanari eta estrategien aplikazioari egindako eskaintza da, baita gogoetarako gonbitea ere.

Guztiona den arazo honen aurrean, etsipena, utzikeria, ezezkortasuna eta joera atzerakorien alternatiba izan nahi du. Gure haurrek euskara eskolan eta eskolatik kanpo gehiago erabil dezaten lan eta ekimenerako bide bat ireki nahi du. Uste bait dugu eskolako mezuek eta bertan hartutako ohiturek kalera, etxera, bizitzara iritsi behar dutela oro har.

Nor garen partaide

Orain arte Tolosako "Laskorain", Atarrabiako "Paz de Ziganda", Gasteizko "Toki Eder" eta Lizarrako ikastolak osatzen dute. Ikastola guztiok biltzen gaituen Elkartetik iharduketa-programa hasierako ahalegin adierazgarri bat egin nahi dugu, gerora joera eta iharduketa-programa zabalago eta orokorragoak sor daitezen, eta horrela haur eta gazteen bat-bateko elkarrizketa eskuarki euskaraz izatea errealitate bihur dadin.

Gure esperientzia horretarako prest eta berarekin lan egiteko gertu daudenei eskaini nahi diegu. Jakinmina asetzeko edo axolagabeen informaziorako bakarrik balioko lukeen produktu batean bihurtzerik ez genuke nahi. Denbora urritasunak eta lanaren zamak, gure proposamenak behin eztabaidatu ondoren benetako gogo pertsonal edo kolektibo batek bultzaturik haiek aurrera eramateko gai direnei bakarrik eskaintzea lana lotzen gaitu.

Nori zuzendua dagoen

Interesa eta gogoetatik abiatuta, beren ahalegin eta lana gure hizkuntzaren berreskuratze osoari eskaini nahi dioten hezkuntzako profesional guztiei.

Helburu hori lortzeko bide eta metodoak bat baino gehiago izan daitezkeela onartzen dugularik, nabarmen utzi nahi dugu gure laguntza-programaren barrenean

aritzeko prest dauden Ikastetxeak antolatu eta bultzatzera bideratuko dela.

Komenigarri da azpimarratzea gure planteamenduak haur erdaldunak euskaldun-zen ari direnentzat egokiturik daudela.

Arestian esan dugun bezala, ez genuke kuskuxeroen erakarmen gune izan nahi, ezta eztabaidaren espekulatzailendako tirabiren gai ere. Gure asmoa erreferentzi puntu eta topagune izatea da, bizitzaren esparru guztietan, beren lanaren bidez, euskara bizia eta erabilia garatzeko konpromezua hartua duten asko horientzat.

Kolektibo berriak "Euskaraz Bizi" proiektuan partaide izateko baldintzak

Proiektu honen partaide izateak gutxienezko baldintza eta konpromezuak onartu beharra dakar, gure ustean ezinbestekoak direnak, etorkizunean eman daitezkeen aplikazio ezberdinak ongi burutu nahi badira. Horiexen artean:

- Euskarazko murgiltze ereduak dituzten ikastetxeak izatea.
- Ikastetxearen proiektuaren barrenean euskarazko komunikazio ohiturak, bai eskolan bai eskolatik kanpo, lortzeko helburua sartztea.
- Ikastetxeko organo kudeatzaile eta erabakitzaileek programa onartzea.
- Ikastetxean atzeman daitezkeen hizkuntz jokabide eta erantzun ezberdinen analisi oinarritutako barne-eztabaida egitea.
- Zuzendariaren konpromezu argi eta nabaria programa bere ikastetxean prestatu eta aplikatzeko.
- Planak koordinatu eta burutzeko gutxienezko egitura bat gauzatzea (Talde koordinatzailea).
- *Zuzendaria + Ikasketa-burua.
- *Zuzendaria + Zikloetako koordinatzailea.
- *Zuzendaria + Zikloetako ordezkariak.
- Ikastetxe bakoitzeko iharduketa-programak landu eta aurkeztea.
- Egoki irizten diren barne eta kanpoko ebaluazioak onartzea.
- Beranduago programaren partaide egiten direnak laguntzeko eta haiengan eragina izateko konpromezua.
- Programak lagundu, eztabaidatu eta zuzpertzeko guneak sortzea (harreman eta estimulazio taldeak). Hiruzpalau ikastetxeen arteko harreman sare bat osatuko litzateke beren artean hartu-eman gehiago eta hobeekin (gune ugari elkarrekin harremanean programa berdin baten bidez).
- Arduradunen partaidetza, programari buruzko gogoeta eta eztabaidarako topaketetan.

Zer nahi dugun

Ez dago gure helburuen artean guztiekin batera eta orokorrean hastea, ez bada

programan ongi motibaturiko aplikazio batean oinarritzen. Ez dugu amaierarik gabeko eztabaidetan galdu nahi, guk dagoeneko erabakiak ditugun arudio bideetan barna, ezta edozein behatzaile kuxkuxeroren bisitarik onartu nahi ere, non ez duten ekintzan konpromezua hartua edo hartu nahi ez dutenena.

Gure asmoek hauxe bilatzen dute:

-Azkenaldi honetan euskarazko bat-bateko komunikazio ohiturak lortzearen eskolaren lana gero eta trinko eta eraginkorragoa izan behar duenaren alde azaltzen ari diren gogoak zirikatzea.

-Etorbizunean sor daitezkeen eztabaidetarako gogoeta-elementuak gehitzea.

-Hizkuntzaren murgiltze-ereduetara jo beharra oraindik izkutuan dagoen tokietan, barne eztabaida piztea.

Haur erdaldunak euskalduntzeko eredu baliagarri eta egokiak orotara hedatzeko martxa mantso horretan, hona zer lortu nahi dugun lehendabiziko epeetan:

-Gaur egun euskaraz murgiltzeko ereduak dituzten ikastetxeetara gure planteamenduak hedatzea.

-Zenbait programari hasiera ematea, aurretik martxan jartzea erabakia duten tokietan, eta haien hurbileko jarraipena egitea.

-Ikastetxe talde txikien artean (3 edo 4 nukleo bakoitzeko) sare bat osatzea, gero eta programa zabaltzen gero eta eragin zuzenagoa izan ahal dezaten.

-Antolatutako erakunde eta kolektiboetan eragina izatea.

-5 urteko epean oraingo joerari buelta ematen saiatzea, eskolan haurrengan euskarazko komunikazio-ohiturak ezartzerik badela frogatuz.

-Gure planteamenduen aplikazioa orotara hedatzea imitazioz edo emaitzen indarrez.

Zenbait gogoeta haur erdaldunen euskalduntzeak gaur egun duen errealitatearen gainean

Nahia eta ezina

Zenbait euskalduntze kolektibotan zailtasun handiak ikusten ditugu eguneroko bizitzaren esparru ezberdinetan euskara bizkor eta bizia lortzerakoan. Euskara pasiboak, nahiz gero eta garatuago eta gaituago izan, ez du euskarazko bat-bateko komunikazioaren atea irekitzen. Benetakoa sinismena dago gure ikasleek euskaraz bizitzen ikas dezaten lortu behar dela; baina etsipena dator ikustean eginahal guztiak gizarte erdaldunak ehoturiko sare estuan amiltzen direla.

Horren ondorioz:

-Batzuk, bide, metodo, planteamendu berriekin hasteko beharra sentitzen dute. Prest daude ordura arte baliagarri izan ez dutena aldatzeko, eta autoebaluazio baiezkor bati ekiteko gertu daude, estrategietan aldaketak egitera eramanen diena.

-Beste batzuk, etsipenean murgilduta, haien helburua ezinezkoa dela ziurtatzera iritsi dira. Horiexei, "Ezina ekinaz egina" herri esaera gogorarazteaz gain, jokabideak aldatu eta moldatzeko metodologia esperimentalak duen ahalmenean sinets dezaten bultzatu behar zaie.

Horretara jotzen duen guztia... ona da.

Badago bide mistoetatik ahalik eta haurrik gehien euskarara hurbiltzen saiatzen denik ere, borondate onean sostengatuz euskal joerako proposamenak bultzatzen duenik. Eraitzen kalitatean galdu gabe, euskarara hurbiltzeko kolektibo horien kezkek konfidantza ematen digu, egindakoaren gainean sakon pentsatu ondoren gure hizkuntza berreskuratzeko eredu aske eta homogeenago batzutura azkar-azkar eginen dutela.

"Posibilista" terminoa berez da dinamikoa, malgu eta aldakorra... egoera berrietara etengabe egokitzen dena. Dozena erdi bat urte "egin ahal zena" gaur egun gainditua dukegu, gero eta argiago dago murgiltze-ereduak hedatu eta garatu behar direla "B" eredu direlakoak garai batean ezarri ziren toki haietan. Begi bistakoa da B ereduak, irakasleek hala utzi duten tokietan, eredu trinkoagoetara jo dutela beren planteamenduetan. Gero eta gutxiago dira "B" eredu eta lehian dabilta ahalik eta azkarren behar bezalako tratamendu eta ospea duten murgiltze-eredu bihurtzeko.

Ez da eskolaren zeregina

Ikusi dugu baita ere, badaudela hemen azaldu dugun arazoak kezkatu ez daudenak. Bestelakoak dira haien interes eta planak, eta izenez euskalduna den gizartean zenbateraino sartuak dauden, horrenbestearainoko hizkuntz ereduak sortzen dituzte euskararen ikaskuntza zuzitzeko.

Euskara ikastetxe barrenean eta kanpoan erabiltzeko hizkuntz ohiturak lortzea ez dela eskolaren eginkizuna argudiatzen dute, gizartea dela erantzunkizun hori bere gain hartu behar duena, gure hizkuntza berreskuratzeko ahalbideetan hain mugatua dagoen gizarte hori, hain zuzen. Beren argudioen nahaspiloa indartzean euskarari eraginkortasuna eta bizitasuna kentzen diote, aldiro hizkuntza zapaltzailearen zaindari bihurtuz.

Ama hizkuntzatik abiatu behar da, elkartzera, nahastera jo behar da... beste hizkuntzarekin banatu... harekin bat egin... erdarak euskarari uzten dion askatasun zaindu horretatik.

Garaia da uler dezaten gure hizkuntzaren garapenak bide askea, bere espazio eta giroa behar dituela; babesatik abiatuz erabat berreskuratu arte haren garapenean ari direnek, beti bat eta tinko jokatuz, bideratuko dutela.

Gure eskoletan egunero ikusten diren arazoak

a) Helburu honen erabateko gabezia ikusten da eskola ezberdinetako proiektu gehienetan.

Ezarrita dago bai, halako adinerako, euskarazko teknika ezberdinak lortu behar direla: gure hizkuntzan ikasketak jarraitzeko adinako hizkuntz gaitasuna izan dezatela,

baina ez da egoki ikusten ikastetxearen helburuen artean euskara erabiltzeko ohitura orokorrik lortzea. Izkutatze hori, askotan benetakoa dena, gure kontzientzien aurrean tabu antzeko zerbait, izkutatu beharrekoa bihurtzen du, segurtasun eza, aztoramendua sorrarazten diguna...

b) Ez da eragiten... ez dago eskaera, itxarobiderik. Ez zaie gure haurrei behar hainbateko indarrez eskatzen euskarazko harremanik. Hezkuntza komunitateko partaide guztiak ez dira horretan sartzen gehienetan.

-Ez zaio baliorik ematen gure hizkuntzaren erabilpenari, ez ikastetxe barrenetik ez kanpotik. Oraindik, hezkuntzako profesional eta kudeatzaileek ez dute behar bezala lotu beren diskurtsuetan euskarazko komunikazio ohiturak eta "hezkuntzaren kalitatea".

-Zoritxarrez, ez dira desagertu eta konpondu aspalditik datozkigun arazoak:

*Gure afera den horren gaineko eztabaida bati ekiteko gai ez diren kudeaketa organoak.

*Burokraziaz gehiegi arduratzen diren zuzendariak. Beren denbora eta adorea helburu hau bultzatzen aritzeko gauza ez direnak.

*Ez honerako, ez harako irakasleak, komunikazio askatasunaren aldekoak, inoiz ere haurren euskararen gainean eragitera ausartzen ez direnak.

*Patxadazko gurasoak, porrot horren zergatiak oso "erraz" irensten dituztenak. Horren gaineko aldaketarik sor arazteko gauza ez diren gurasoak.

Zoritxarrez, asko dira beren eskoletan lagunekin euskaraz aritzeko behar subjeliboa sortzeko ezinbesteko indar eragile horiek aurkitzen ez dituzten haurrak. Helburu horren aldeko eztenkadak hain dira bakan eta lauso, oso zail dutela jakitea non, noiz eta norekin aritu, saiatu eta ikasi behar duten, gerora ohitura hori bizitzaren beste espazio eta egoeretara hedatzeko.

d) Ez dago sistemaz egindako errefortzurik, haurrek norekin eta zein egoeratan euskaraz egin behar duten jakin dezatenera zuzendua. Ez dira ugari, lausenguak, zorionak, hitz goxoak haurrengan barreneko harrotasuna eta poza sortuko dutenak. Alderantziz, euskaraz hitz egiten badute, ez zaie kasurik egiten zeren eta, soldaduskan balentria bezala, "izanen bait dute, seguruenera" eta erdaraz ari badira, utzi behar bait zaie, bestela haien askatasun eta komunikazio beharra kaltetuko bait litzateke.

Oso gutxi, urriak dira eskoletan darabilzkigun baliabide materialak, bai ekintzak, bai gizartean baloratzekoak, bai taldean edo bakarka lilura sortzekoak, euskara erakargarri eta irrikatsuago bihurtzeko.

e) Beti bat eta batera jokatzea falta da ekintzetan.

Batzuk egiten dutenari beste batzuk ez diote jarraitzen, edo bestela irragarri utzi eta desagiten dute. Ikastetxe berean joera, irizpide eta iharduketa asko ikus daitezke, guztiak euskara barra-barra erabiltzeko ohituretara bideratuak, baina haien arteko ardatz nagusirik gabe.

Dena den, badira ahalmen handiko bitartekariak, emaitza onak lortzen dituztenak zenbait mailatan, baina kolektibo osoaren irizpide eta iharduketen plan bateraturik gabe basamortuko oasiak edo arauen salbuespen bezalakoak dira.

Errazago da inora ez doazen iritzi eta iharduketa kontrajarriekin topo egitea.

-Batzuk oso trebeak dira beren berbaldi eta arrazonamenduekin jendea limurtzen, baina kontuan hartu behar dugu hitzak luzarora (epe motzera ere) nekatu, asebeta eta axolagabezia dakarrela, arbuioa ez denean.

-Beste batzuk gogor eta oldartsu eskatzen dute euskaraz komunikatzea. Ez dute zalantzarik zigortzeko eta lortzen dute zenbait fruitu, baina umotu beharrean azkar asko usteltzen dira.

-Gehiengoak dira ez ikusi, ez entzuten ez dutenak, ikusi eta entzun ere nahi ez dutenak, euskaraz nahiz erdaraz aritu haurren ondotik axolagabe pasatzen direnak, ez bultzatu, ez animatu, errietaryk eman ez, adorerik ezta ere, baloratzen ez dutenak...

Kontrolaren aurkako fenomenoak ere ikus dezakegu haurren arteko euskara mintzatu bultzatzeko planak aurrera eramanean nahi direnean. A esan eta B nahiago duen taldea sortzen da istanteko, baietz diotenen aurrean hortxe dituzu galeraziko dutenak. Bada batzuen besteenganako kontrol etengabea, asko eta askotan ongi planifikatutako ekintza, eta gehien batez horren jarraipena oztopatzen duena.

f) Eskolaz kanpoko ekintza osagarrien urritasuna, eskolan ikasitako hizkuntz portaearak beste gune eta egoeretara zabaldu ahal izan daitezen laguntzen ez dutenak. Zenbait ikastetxe, eskola akademia bihurtzeko arriskutan daude, ateak itxi eta ireki bai, baina iharduera osagarririk ez duten sortuko, haurrek gogokoen dituzten kirol eta ekintzetan euskaraz murgilduta bizitzeko aukerarik eman gabe.

Askotan esan ohi da udal edo eskualdeko kultur koordinatzaileen eginkizuna dela, haiek gizarte esparru zabalago batean bildu behar dituztela gure haurrak, baina praktikak erakusten digu, maiz askotan, ezerri begiratu gabeko taldekatzeak euskara besterik ez edo nagusiki behintzat erabiltzearen oztopo bihurtzen direla iharduera horiek.

Haur euskaldunen euskalduntzean kontuan hartu beharreko aldagaiak

Ikasketak jarraitu ahal izateko hizkuntz ahalmen eta gaitasunak, eta euskararen aldeko jarrera eta portaerak izanen dira gure ekinbide bikoitza haur erdaldunak euskalduntzerakoan.

Bigarren hizkuntza bat ikasi eta urtero urtero hizkuntza horretan eskolako ikasketak egitearen zailtasunak, karga artifizial gehiegirekin eta hizkuntza guztiek behar duten goxotasun eta identifikaziorik gabe hura eraikitzeak arriskua dauka. Hortik dator lan egin beharra, ikasleak euskara zerbait berea eta bizia bezala senti dezan, hunkipen eta sentimenduak adierazteko baliagarri izanen duena. Gure praktikan aldagai multzo bat kontuan hartu behar ditugu, erabakiorrak bait dira euskara ikasleengan txertatzeko.

Hona aldagai horietako batzuk:

Euskara goiz txertatzea:

Lehen bait lehen izan behar du. Ez 3 urte izan baino beranduago.

Euskararendako bide askea:

Erdararekiko menpekotasunik gabe sortu behar du. Bere kaxa, armonian eta sendo eraikitze behar diren elementu guztien jabe behar du izan. Euskararekiko identifikazioa bitartekari koherente eta tinkoen bidez egingen da eta harremanerako baliabide eta egoera babestuen egiturak erabiliz, horrela piskana-piskana barneratuko bait da.

-Euskara haurrengana helarazteko ereduen tinkotasuna. (bitartekariak). Euskaldunak, hizkuntz planteamendu koordinatuen jabe direnak.

-Planteamendu egonkorak eta bitartekotza motibagarri eta iraunkorra.

-Euskararen gune propioak. Eskolako gune koherenteak, non euskara ikasketa eta bizitza bait da batera (ez ikasketa soilik).

-Lasaitasun eta konfidantzazko harreman giroa. Gogoko iharduera erakargarrien bidez ardura eta bultzakada iraunkorra sortu behar duen motibapen giroa.

Euskararentzako bide aske hau piskana-piskana erdara garaile den eremutan sartuko da. Hori gertatzen bada, gure ikasleek euskara gero eta gehiago barneratzen dutelako gertatuko da. Euskarak haurrengan errotzeko behar duen giro babestu eta homogeneo horri uko egiteak atzera ezin eginiko urruntzea eta identifikazio galtzea esan nahi du, hura eskolako hizkuntz soil, hotz, harremanetarako huts bihurtuz. Hasierako babes hori, zenbat eta erdal giroa indartsuago eta eragin gehiagokoa izan (familia, lagunak, komunikabideak...), orduan eta beharrezkoago da. Ez gaude hizkuntz borrokarako mutur-muturreko nukleoak sortzen, bigarren hizkuntz jakintza bat sortzen baizik, gutxienez lehen hizkuntzaren baldintza berdinetan.

Euskaraz eskolatzea:

Irakurtze-idazte eta matematikazko adierazpena ere Euskaraz hasiko ditu horiek menperatzea lortu arte. Beranduago gaztelerazko irakurtze-idazte kodea irakatsiko zaio bi hizkuntzetan derrigorrezko eskolatzea bukatzerako ulermen-adierazpen gaitasun berdintsua lortu arte.

Honek esan nahi du haurrak lortu duela Eskolaurrean Euskaraz hitz egiteko ohitura eta gaitasun nahikoa.

Ikasleen joera eta gaitasunak kontuan hartuko dituzten programak:

-Eskolako kurtsoetan gora, euskara eta euskal kultura menperatzera eramaten duten programak.

-Eskolako kurtsoetan gora, erdararen inguramenduak sortzen dituen oker eta erdarakadak zuzentzeko jokabidea kontuan hartuko duten programak.

-Hizkuntz portaerako helburuak bilatuko dituzten programak. Euskararen aldeko joera areagotuko duten ekintza, mezu erakargarri eta diskurtsuak. Garrantzikoa da bapateko komunikazio ohitura horiek lortzeko epe ezberdinetara egokituriko plangintza osatzea.

Konpromezuan bat egindako irakasleak, jarraitzeko aukera dutenak:

Norberekerietatik ihes egin behar da, irizpideetan bat eta elkarturik jokatu duten, bat egirik aritzeko konpromezua hartuko duten irakasleak bilatzeko, eta horiei jarraitzeko aukera eman behar zaie.

Irakasle praktikoak, ikasleekiko harremanak beste modu batera planteatzeko gauza direnak, ikasleen erantzunetan benetako eragina duten aldagaiak esperimintatu eta horien gainean esku hartzen dutenak. Hazten ari diren portaeren behatzaile eta modelatzaile bikainak.

Arrakastaren gainean eta ez porrotarenean hezitzen dakiten irakasleak... zertan doazen aurrera, hartan eraginez eta ez porrotean.

Irakasle ongi informatuak, sortzaileak, plangintza egileak, euskara goitik behera menperatzen dutenak... interesdunak, motibatuak eta motibatzaileak.

Langile finko diren irakasleak, hezkuntza planteamenduei jarraipena eman eta berorietatik atera daitezkeen ondorioak jaso ahal izanzen dituztenak.

Ikasle nagusiak protagonista, euskararen aldeko portaerak zuzperten:

Txikienek nagusien portaerak imitatzen duten joerak eskolari behartzen dio, azken hauek ikastetxe barrenean eta kanpoan protagonista izanik, zenbait iharduketa planifikatu eta bultzatzen. Ikasle nagusi horiengandik sortutako lanak atzera beraiengana egiten du, norberaren barne-poza eta programaren helburuekin identifikazio gehiago eraginez.

Gurasoen eragina seme-alabak euskalduntzen:

Familiaren laguntzak haurren lan eta ahalegina jarraitu, baloratu eta indartuz hasi behar du. Gero, haren kezka eta iharduera ikastetxeak eskatzen dion hezkuntzarako laguntza eta lankidetzara bideratu behar da, eskolaren esparrutik kanpo, euskarazko komunikazio ohiturak sakondu eta zabaltzearen. Eskolak, batik bat maitasun esparru den etxera egitearekin, ikasleek eskaera, estimulu eta itzarobide berri bat jasoko dute, euskara famili barrenean eta eskolatik kanpo erabil araztera bultzatuko dituenak.

Ikasleen arteko laguntasun giro lasaia:

Motibapen eta errefortzu jarraituko giroak bitartekarien eskaera eta itzarobideak zein diren ezagutzen laguntzen du. Ez daiteke eraiki atezu eta beldurraren artean. Ezinbesteko helburua dugu ikasleak pozik eta identifikaturik egotea, ikastetxe, irakasle eta ikaskideekin. Garrantzizkoa da lasai eta trankil egotea, gehiegizko larderiak edo bikainkeria zorrotzeak sortutako ongieza eta higuinik gabe.

Ikasleen artean lankidetzeta eta elkartasun giroa eman dadin lan egin behar da, euskara eskolatik bizitzara hedatze horretan beraiek partaide eta aktore izan daitezten.

Ingurunearekiko harremanak:

Hizkuntz babesak ez du ingurunearekin apurtu eta gure lana izkutuan egiterik esan nahi. Bai gure hizkuntz helburuak, bai ekintza praktikoak ingurunearen baitan eman

behar dira, gure planteamenduekin ados egonik eta gure mezua inguratzen gaituen gizartera zabaltzen saiatuz. Gure haurrak euskaraz komunikatzen direla eta horretaz harro gaudela erakutsi behar dugu inguruan.

Ingurunearen baitan egotea, bertatik sortzen diren topaketa eta ihardueretan partaide izatea da, horiek gure hizkuntz helburuei garatzea uzten badiete, behintzat. Parte hartzea da, lan eta kalitatea eskeiniz; inguruko komunikabide, elkarte eta erakundeak erabiltzea, bizitzara aplikatutako euskara gero eta gehiago ederretsi ahal izan dadin, inguruneak, guk ikastetxe barrenean indartu eta bultzatu nahi ditugun hizkuntz portaeretan eragiteko duen ahalmena gureganatzea.

Euskara eskolatik kanpora hedatzea:

Ikasleek toki euskaldunetan eta euskaldunekin bakarrik topo egiteko babesteko estrategien faseari, beste batek jarraitu behar dio, ekintza osagarrien bidez euskara beste mikroespaziotara zabaldu eta hedatuko duena. Ikastetxetik kanpo euskarazko komunikazio ohituren garapen horrek euskararen normalkuntza sortuko du ikasleen usteetan. Funtsezko da gizartean erdaldunek elebidunekin bizitzen ikas dezaten, -euskal kinaden aurrean euskaraz tinko bizitzeko hautua egin dutenekin alegia, eta horrela geratuko dira indarrik gabe, eta etorkizun ikuspegirik gabe erdara besterik ez dakitenean aurreko begirune eta hizkuntz egokitzapenaren argudioak.

Helburu hori, lortzeko bidean Ikastetxe barrenean emaitza hobe edo txarragoekin erabiltzen ditugun iharduera guztiei ongi erreparatu eginik, ekin beharko diegu, eta horiek hizkuntz edukin eta helburuz bete:

- Eskolaren osagarri diren kultur ikustaldiak.
- Ikastetxe bereko ikaskideen elkarbizitza.
- Beste ikastetxetako ikasleekin egotea.
- Kirol, musika, folklore, antzerki... iharduera osagarriak, eskola ordutatik kanpoko horietan aritzean, euskara eskolaren esparrutik kanpora eramaten laguntzen baita.

Jose Luis Gorostidi

*Iruñeko Paz de Ziganda ikastolako zuzendaria
Euskaraz Bizi proiektuko sortzaile eta arduraduna*